



## GOBERNU BATZARRA

2021.12.14

**Alkatea:**  
Olatz Peon Ormazabal

**Bertaratutako zinegotziak:**  
Xabier Balerdi Tolosa  
Begoña Tolosa Mendia  
Nerea Letamendia Beloso  
Patxi Amantegi Zubiria

**Ez da bertaratu:**  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria

**Idazkaria:**  
Begoña Garmendia Tolosa

**Kontuhartzaile akzidentala:**  
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko abenduaren hamalauan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2021eko azaroaren 30ekoa.
2. "24.1 lurramendi pasealekua" Azpiesparruko hitzarmen-batzarraren eraketa-eskritura eta horren estatutuen berrespena.
3. "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko urbanizazio proiektuaren hasierako onespina.
4. Dekretu hauen berri ematea:  
  
2021/1958 Dekretua: 2021/47 eta 2021/48 faktura zerrendak.  
  
2021/1989 Dekretua: 2021/49 faktura zerrendak.

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO AZAROAREN 30EKOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko azaroaren 30ean egindako ohiko batza publikoaren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2. "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUKO HITZARMEN-BATZARRAREN ERAKETA-ESKRITURA ETA HORREN ESTATUTUEN BERRESPENA.**

**Esparrua:** 24. lurre

**Azpiesparrua:** 24.1 lurramendi pasealekua



**Espedientea:** 2021H1140001

## AURREKARIAK

2021eko azaroaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrean behin-betiko onespena eman zitzaion "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programa egikaritzeko hirigintza hitzarmenari.

2021eko abenduaren 3an, "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko jabeek euren artean hitzarmen-batzarra eratu zuten eskritura publiko bidez eta ontzat eman zituzten Jarduteko Oinarriak zein Estatutuak.

Eskritura publiko horretan Olatz Peon Ormazabal andreak parte hartu eta sinatu zuen Tolosako Udaleko Alkate moduan. Ez zuen, ordea, aurkeztu hitzarmen-batzarrean parte hartzeko Tokiko Gobernu Batzarrak berariaz emandako ahalmenaren ziurtagiria. Hortaz, zirkunstantzi hori ziurtatu gabe geratu zen ondorengo momentu batean berresteko.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Besteak beste, honako hau da aplikatu beharreko legeria:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 159.etik 165.era bitarteko artikulua eta zazpigarren xedapen gehigarria.
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurri buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 44. artikulua.
- Abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamenduaren 157. artikulua eta hurrengoak [*Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen aurka ez doan guztian*].

II. "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko jabeek osatutako hitzarmen-batzarrak eremu horretako lurren jabetzaren %100 biltzen du eta, beraz, 2/2006 Legean horri buruz ezarritako baldintzak betetzen dira.

III. Hitzarmen-batzarraren Estatutuak 3288/1978 Errege Dekretuaren 166. artikuluan ezarritako gutxienezko inguruabarrak jasotzen dituzte.

IV. Alkatezari legoke "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko hitzarmen-batzarraren eraketa-eskritura eta horren Estatutuak berrestea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalari dagokionez, ordea, hirigintza-kudeaketarako tresnak onartzeko eskuduntza Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkateza Dekretuz. Hortaz, azken organo horri dagokio aipatutako berrespina ematea.

## AZTERKETA JURIDIKOA

2021eko abenduaren 3an sinatutako eskritura publikoak baliozkotasun osoa izan dezan beharrezkoa da Tokiko Gobernu Batzarrak adierazitako eraketa-eskritura zein Estatutua berrestea.



Honela, kontuan hartuz aurretiaz aipatutakoa, onargarria zein beharrezkoa da hitzarmen-batzarraren eraketa-eskritura eta horren Estatutuak berrestea.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuz espedientean jasota dauden txosten juridikoak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Berrestea 2021eko abenduaren 3an sinatu zen "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko hitzarmen-batzarraren eraketa-eskritura eta onartutako Estatutuak. (Maria Valentina Montero Vilar Euskal Herriko Elkargoko notarioaren mila laurehun eta laurogeita hamaseigarren zenbakia).

**BIGARRENA.-** Berrestea Olatz Peon Ormazabal Alkatearen ordezkari, Tolosako Udalaren ordezkari gisa 2021eko abenduaren 3an sinatutako hitzarmen-batzarraren eraketa-eskrituran zein zuzendaritza-organoan.

### 3. "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN HASIERAKO ONESPENA.

<b>Esparrua:</b>	24. lurre
<b>Azpiesparrua:</b>	24.1 lurramendi Pasealekua
<b>Eskatzailea:</b>	Construcciones Sukia Eraikuntzak SA (ordezkaria: Alfredo Pozueta Lopez de Zubiria)
<b>Sarrera datak:</b>	2021/06/18 (2021-6126 zk.)
<b>(erregistro elektronikoa)</b>	2021/11/19 (posta elektronikoz: dokumentazio osagarria - planoak)
<b>Espedientea:</b>	2021H1220001

### AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Txosten teknikoa (JO21_042)	2021/11/29	Kontrakoa
Txosten teknikoa (JO21_048)	2021/11/30	Aldekoa
Txosten juridikoa (MAU21_019.1)	2021/12/09	Aldekoa



2021eko azaroaren 30eko udal teknikariaren txosten teknikoak, laburbilduz, honakoa dio:  
“(...)

## 2- AZTERKETA TEKNIKOA:

- **TXOSTENAREN HELBURUA:**

Txostenaren helburua da 2021-11-19an posta elektronikoz jasotako dokumentua aztertzea, zehazki, lehen dokumentuari buruz egindako zuzenketak, eta horri buruzko informazioa ematea.

- **DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA:**

Txosten honek aurreko txosteneko 3. proposamena atalaren egitura jarraitzen du, eta egindako zuzenketa baliozkotasuna puntuz puntu aztertzen da.

### 1. Irisgarritasunari buruzkoak:

- *Galtzadako oinezkoentzako pasaguneen zabalera zuzendu behar da, espaloiko a baino txikiagoak izan ez daitezten.*
  - Txostenean adierazitako oharren arabera zuzenketak egin dira.
- *0+130 kp-an dagoen oinezkoentzako pasabidean, horren presentzia seinaleztatu behar da, oinezkoen norabidearekiko zeharkako banda batekin. Banda hori zola ukigarriaren bidez zintarriaren paraleloan dagoen zenefalerroraino luzatu behar da. (03.03 2 de 5 plano)*
  - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
- *2,20 m-tik beherako altueran dauden ainguraketa-buruak ez dira hormatik irten behar.*
  - Ainguraketarik behar ez duen euste-soluzio berri bat definitu du.
- *Mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzako aparkaleku plazak, hurbilen dauden oinezkoen pasabideen ondoan kokatu behar dira. 3,60 m-ko zabalera eman behar zaio, edo ahalik eta zabalena, espaloia txorkoen barne-lerroraino atzeraeman. Era berean, galtzadaren eta espaloien arteko desnibela gainditzen duen arrapala irisgarri bat egokitu behar zaio. Horrez gain, gainerako ibilgailuak aparkatzeko debekua ere seinaleztatuko da.*
  - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
- *A.20.5 eta A.20.6 partzelen artean dagoen eskailerak, 2,40 m-tik gorako zabalera duenak, eskubanda bikoitza gehitu behar zaio erdian.*
  - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
- *Eremuaren beheko aldean dagoen hormak, parkera sartzeko eskaileraren ondoan dagoenak, babes-elementuren bat izan behar du, altueran erortzeko arriskua kentzeko.*
  - Sarbidearen diseño berriak ez du beharrezkoa egiten aurreko diseinuak eskatzen zuen altueran erortzeko babesa.

### 2. Urbanizatzeko ordenantzei eta azpiegiturei buruzkoa:

- Ur-hornidura sarea:



- *Egungo sarearekin instalatu beharreko sare berriaren konexioak balbula hirukoitz batekin egin behar dira proiektuan planteatutako bi lotura-puntuetan.*
    - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
  - *Martin José Iraola ibilbidetik hurbilen dagoen lotunean, emariak kontrolatzeko kontagailu sektorial bat jarri behar da. Kontagailu horrek 100 mm diametroko kontagailu elektromagnetikoa izan behar du, desmuntatzeko orgaz muntatua eta balbula aurretik eta ondoren. Kutxatilkak kontagailua aldatzeko aukera eman behar du beharrezkoa denean, eta emari-neurgailua eta desmuntatze-orga hartu behar ditu. Balbulak kutxatilatik kanpo gera daitezke, manipulatzeko tranpilloi batekin.*
    - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
  - *Hornidura-sarea itxi egin behar da eremuaren mendebaldeko muturrean dagoen sarearekin konektatuta. Era berean, hiru konexio-balbula jarri behar dira.*
    - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
  - *23-24-25 atarien aurreko hornidura-harguneak berritu egin behar dira, eta sare orokorrerako konexioa ere bai, sare orokorrera T-brida baten bitartez konektatuta ez badago.*
    - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
  - *Hartuneen konexio motak, Gipuzkoako Urak-en araudi teknikoan jasotako A motako hartune batekin bat etorri behar dira.*
    - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
  - *Edozein puntutatik hurbilen dagoen hidrantera egon daitekeen gehieneko distantziak ez du 100 m-tik gorakoa izan behar. Proiektuan aurreikusitako bi ur-hartuneak baldintza hori betetzen duten baieztatu beharko da.*
    - Dagokion memoriako eranskinean justifikatu beharko da.
  - *Ureztatzeko 3 aho jarriko dira, bat eremuaren mutur bakoitzean eta hirugarrena biribilgunetik gertu dagoen beheko aldean. Kontagailua izango dute, eta Gipuzkoako Urak-en araudiko zehaztapen teknikoak beteko ditu.*
    - Ureztatze-ahoen kopurua eta banaketa zuzendu dira.
    - Gogorarazten da, Gipuzkoako Urak enpresaren jarraibideak betez, kontagailua eduki beharko dutela.
- Ur beltzen sarea:
- *7.1.2 3 de 8 Azpiegiturak, Gipuzkoako Urak, Saneamendua, planoan adierazten denaren arabera, Fe9 eta Ue12 loturen arteko kanalizazioa, mantentzea aurreikusten dena, egungo Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu teknikoarekin bat datorrela baieztatu beharko da. Horretarako bideo-ikuskapena egin beharko da. Era berean, 23-25 atarietako hartuneekin ere egin behar da. Ikuskapena egin eta akatsak antzemanaz gero, Erregelamendu horretan jasotakoa betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren jarduketak egin beharko dira.*



- Urbanizazio-proiektua behin betiko onartu aurretik, proiektuaren dagokion eranskinean, Fe9 eta Ue12 loturen arteko kanalizazioa, mantentzea aurreikusten dena, egungo Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu teknikoarekin bat datorrela baieztatu beharko da.
- Euri-uren sarea
  - *Paper kaleko konexio-puntutik behera, gehitutako emariarekin, hodiaren husteko ahalmena justifikatu beharko da.*
    - Urbanizazio-proiektua behin betiko onartu aurretik, proiektuaren dagokion eranskinean, Paper Kaleko konexio-puntutik behera, gehitutako emariarekin, hodiaren husteko ahalmena justifikatu beharko da.
  - *Hormigoizko hodietan abiadura 4 m/s-tik gorakoa eta UPVCzko hodietan 5 m/s-tik gorakoa den tarteetarako, eta, batez ere, lehendik dagoen sarearekiko konexio-puntuetan, sareko elementuen babes bermatzeko, emariak moteltzeko soluzioak definitu beharko dira.*
    - 7.2 planoan Pn6 eta P22 putzuen arteko emariaren abiadura murrizteko soluzio bat definitu da. Hodiaren profil mailakatu baten bidez eta putzuak tartekatuz abiadura murriztea lortzen da. Urbanizazio-proiektua behin betiko onartu aurretik, euri-uren sareko, 5 m/s-tik gorakoa den tarteetarako, eta, batez ere, lehendik dagoen sarearekiko konexio-puntuetan, sareko elementuen babes bermatzeko, emariak moteltzeko soluzioak justifikatu eta definitu beharko dira.
  - *Proiektuan barne hartu beharko dira euri-uren sareko elementuen xehetasun-planok (putzuak, tapak, ezponda gaineko zorrotan...). Elementu horien zehaztapen teknikoak zehazte aldera, erreferentziako dokumentu gisa, Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu teknikoa hartuko da.*
    - Jatorrizko dokumentuaren xehetasun-maila ez da handitu, beraz, Urbanizazio-proiektua behin betiko onartu aurretik, *Proiektuan barne hartu beharko dira euri-uren sareko elementuen xehetasun-planok (putzuak, tapak, ezponda gaineko zorrotan...). Elementu horien zehaztapen teknikoak zehazte aldera, erreferentziako dokumentu gisa, Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu teknikoa hartuko da.*
  - *Obra berriaren deklarazioan, eremu pribatua mugatzen duten hormen gainaldean dauden zaintzako arekak, baita altueran erortzeko babes-elementuak ere, elementu komun bezala jasoko dira. Ez dira Udalarena izango. Elementu horien mantentze beharrei erabilera pribatuko lursailaren jabeek erantzungo beharko diete.*
    - Arekak eta behar diren babes-elementuak mantentzen dira, beharrezkoak baitira. Beraz, gogorazten da, Obra berriaren deklarazioan, eremu pribatua mugatzen duten hormen gainaldean dauden zaintzako arekak, baita altueran erortzeko babes-elementuak ere, elementu komun bezala jasoko dira. Ez dira Udalarena izango. Elementu horien mantentze beharrei erabilera pribatuko lursailaren jabeek erantzungo beharko diete.



- Telekomunikazio sarea
    - *Iparraldeko bideko galtzada gurutzatzen duen Telefónicaren sarearen trazadura zuzendu behar da. Trazadurak bidearen ardatzarekiko perpendikularra izan behar du.*
      - Ez da trazaduraren zuzenketa egin, beraz, Urbanizazio-proiektua behin betiko onartu aurretik, iparraldeko bideko galtzada gurutzatzen duen Telefónicaren sarearen trazadura zuzendu behar da. Trazadurak bidearen ardatzarekiko perpendikularra izan behar du.
    - *Kutxatila guztiak, lehendik daudenak eta berriak, galtzadetatik kanpo kokatu behar dira.*
      - Kutxatilak, oro har, galtzadaren kanpoaldean daude, mendebaldeko bidean izan ezik. Horiek, modu justifikatuan, aparkalekuen eremuan kokatzen dira.
  - Sare elektrikoa
    - *Transformazio-zentroa proposatutako kokapenetik metro gutxira dagoen eskaileren azpiko espaziora lekualdatu beharko da.*
      - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
    - *Mendebaldeko bideko aparkalekuen gainean dauden kutxatilak alboko espaloiarene barrualdean kokatu beharko dira.*
      - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
- 3. Urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak.**
- Materialak:
    - *Zintarriak, denak, granitozkoak izan behar dira. Aurrekontuan dagokion obra unitatea zuzendu beharko da.*
      - Ez da aurrekontua zuzenduta aurkeztu, beraz, Urbanizazio-proiektua behin betiko onartu aurretik, aurrekontuan dagokion obra unitatea zuzendu beharko da.
  - Hiri ekipamendua:
    - *Urbanizazio-proiektuak haurrentzako jolas-espazioa barne hartu behar du, eta haurrentzako bi adin-tarteri eman behar die zerbitzua, onartutako urbanizatzeko jarduketara-programan zehazten den bezala.*
      - Txosteneko oharren arabera zuzenketak egin dira.
  - Eraikuntza soluzioak
    - *Proposatutako hormigoizko hormen tipologia, akabera testurizatua duena, zuzena da. Udalari kontsulta egingo zaio, exekutatu aurretik, aukeratu beharreko testurizazio motari buruz.*
      - Oharra mantentzen da.
    - *Mikropilotezko pantailako aurreko estaldura xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko da, eta, horrez gain, bertan ainguratzeak (banaketa-habeak, koroatze-zuntxoak...) eta aurreikusitako drainatze-soluzioa zehaztu beharko dira.*
      - Mikropiloteak behar ez duen euste-sistema berri bat definitu da.
    - *Ainguraketaren tipologia eta elementu guztiak zehaztu behar dira xehetasunez (buruko elementuak, eremu librea, bulboa, injekzio-mota...).*



- Ainguraketak behar ez duen euste-sistema berri bat definitu da.
- *Ainguraketaren beraren egonkortasuna diseinatu eta justifikatu beharko da, gutxienez, egiaztatu beharko dira:*
  - *Altzairuaren tentsio onargarria*
  - *Bulboaren erauztearen aurreko segurtasuna*
  - *Tirantearen lerradura letxadan, bulboaren barruan.*
  - *Bulboaren erauztea*
    - Ainguraketak behar ez duen euste-sistema berri bat definitu da.
- *Karga residualak zuzenean neurtu ahal izateko sistema bat instalatu beharko da, gutxienez bi ainguraketa-burutan.*
  - Ainguraketak behar ez duen euste-sistema berri bat definitu da.
- *Ainguraketa aktiboen hausturatik babesteko sistema bat zehaztu beharko da (buruetako lotura-kableen lineak...).*
  - Ainguraketak behar ez duen euste-sistema berri bat definitu da.
- *Obra-amaierako dokumentazioan mantentze-, ikuskapen- eta kontrol-plan baloratua sartu beharko da.*
  - Ainguraketak behar ez duen euste-sistema berri bat definitu da.
- Parkerako eremuaren behealdeko sarbidearen eraikuntza-bideragarritasuna baloratzeko, eskailerak, mikropiloteen pantailak eta hormak jasotzen dituen altxaera eta sekzio bat egin beharko da, barne hartzen duena proiektu eremutik kanpo geratzen den eskailera zatia parkeko bidera iritsi arte.
  - Txosteneko oharren araberrako zuzenketak egin dira.

#### 4. Txosten Sektorialak

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzakoa:
  - *2021eko urtarrilaren 4ko Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostena betez, HAPOko 24 lurre HJAren arau partikularreko (hirigintzako fitxa) VIII. atalean jasotako ingurumen-neurriak kontuan hartu direla justifikatu egin behar da.*
    - Oharra mantentzen da
- Jabari publiko hidraulikoa:
  - *Obraren eremua jabari publiko hidraulikoaren poliziagunean dagoela kontuan hartuta, nahitaezkoa da arroko erakundearen baimena.*
    - Oharra mantentzen da
- Bide-jabari publikoa:
  - *Kontuan izanda, GI-2130 errepidearen plataforma urbanizazio proiektuaren ondoan kokatzen dela, nahitaezkoa izango da Bide Azpiegituretako sailaren administrazio- baimena.*
    - Oharra mantentzen da





### 3.- PROPOSAMENA:

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, eta txosten honetan azaltzen diren argudioetan oinarrituta, hauxe da proposatzen dena:

**LEHENENGOA.-** HASIERAKO ONESPENA EMATEA 24 lurre esparruko “24.1 lurramendi Pasealekua azpiesparrua” Urbanizazio proiektuari ( 2021eko ekainaren 18an aurkeztutako dokumentuari, 2021-11-19an, bidalitako 2.“Planoak” dokumentuan adierazten diren zuzenketekin):

**BEHIN BETIKO ONESPENA eman aurretik, zuzendutako dokumentua aurkeztuko da, aldaketa hauek barneratuko dituena:**

#### 1. Urbanizatzeko ordenantzei eta azpiegiturei buruzkoa:

- Ur-hornidura sarea:
  - Proiektuak adierazi beharko du hartuneen konexio motak, Gipuzkoako Urak-en araudi teknikoan jasotako A motako hartune batekin bat etorri behar dela.
  - Edozein puntutatik hurbilen dagoen hidrantera egon daitekeen gehieneko distantziak ez du 100 m-tik gorakoa izan behar. Proiektuan aurreikusitako bi ur-hartuneak baldintza hori betetzen duten baieztatu beharko da.
  - Ureztatze ahoek kontagailua izango dute, eta Gipuzkoako Urak-en araudiko zehaztapen teknikoak beteko ditu.
- Ur beltzen sarea:
  - 7.1.2 3 de 8 *Azpiegiturak, Gipuzkoako Urak, Saneamendua*, planoan adierazten denaren arabera, Fe9 eta Ue12 loturen arteko kanalizazioa, mantentzea aurreikusten dena, egungo Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu teknikoarekin bat datorrela baieztatu beharko da. Horretarako bideo-ikuskapena egin beharko da. Era berean, 23-25 atarietako hartuneekin ere egin behar da. Ikuskapena egin eta akatsak antzemanaz gero, Erregelamendu horretan jasotakoa betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren jarduketak egin beharko dira.
- Euri-uren sarea
  - Paper kaleko konexio-puntutik behera, gehitutako emariarekin, hodiaren husteko ahalmena justifikatu beharko da.
  - UPVCzko hodietan 5 m/s-tik gorakoa den tarteetarako, eta, batez ere, lehendik dagoen sarearekiko konexio-puntuetan, sareko elementuen babes bermatzeko, emariak moteltzeko soluzioak definitu beharko dira.
  - Proiektuan barne hartu beharko dira euri-uren sareko elementuen xehetasun-planok (putzuak, tapak, ezponda gaineko zorrotzenak...). Elementu horien zehaztapen teknikoak zehazte aldera, erreferentziako dokumentu gisa, Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu tekniko hartuko da.
  - Obra berriaren deklarazioan, eremu pribatua mugatzen duten hormen gainaldean dauden zaintzako arekak, baita altueran erortzeko babes-elementuak ere, elementu komun bezala jasoko dira. Ez dira Udalarena



izango. Elementu horien mantentze beharrei erabilera pribatuko lursailaren jabeek erantzungo beharko diete.

- Telekomunikazio sarea
  - Iparraldeko bideko galtzada gurutzatzen duen Telefónicaren sarearen trazadura zuzendu behar da. Trazadurak bidearen ardatzarekiko perpendikularra izan behar du.

## 2. **Urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak.**

- Materialak:
  - Zintarriak, denak, granitozkoak izan behar dira. Aurrekontuan dagokion obra unitatea zuzendu beharko da.
- Eraikuntza soluzioak
  - Proposatutako hormigoizko hormen tipologia, akabera testurizatua duena, zuzena da. Udalari kontsulta egingo zaio, exekutatu aurretik, aukeratu beharreko testurizazio motari buruz.

## 3. **Txosten Sektorialak**

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzakoa:
  - 2021eko urtarrilaren 4ko Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostena betez, HAPOko 24 lurre HJAren arau partikularreko (hirigintzako fitxa) VIII. atalean jasotako ingurumen-neurriak kontuan hartu direla justifikatu egin behar da.
- Jabari publiko hidraulikoa:
  - Obraren eremua jabari publiko hidraulikoaren poliziagunean dagoela kontuan hartuta, nahitaezkoa da arroko erakundearen baimena.
- Bide-jabari publikoa:
  - Kontuan izanda, GI-2130 errepidearen plataforma urbanizazio proiektuaren ondoan kokatzen dela, nahitaezkoa izango da Bide Azpiegituretako sailaren administrazio-baimena.

**BIGARRENA.-** Jakinarazpena egiten denetik gehienez ere 3 hilabeteko epea ezartzea dokumentazioa zuzentzeko.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpena interesdunei jakinaraztea”.

## **ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

I. Urbanizazio-proiektuak urbanizazio-obren xehetasun teknikoak zehazten dituzten obra-proiektuak dira. Behar besteko zehaztasunez idatzi behar dira, erredaktorea ez den beste teknikari baten zuzendaritzapean exekutatu ahal izateko.

II. Honako hauek ezartzen dute aplikatu beharreko legeria:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147, 194 eta 196. artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikulua.



**III.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194.3 artikularekin bat etorri, Urbanizazio Proiektuak honako agiri hauek bildu behar dituzte:

- Obren ezaugarriak deskribatzen dituen memoria.
- Proiektu- eta xehetasun-planoak.
- Neurketak.
- Aurrekontuak.
- Obra eta zerbitzuen baldintzen agiria.
- Segurtasun- eta kalitate-azterlanak, -programak eta -planak.

**IV.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.1 artikulua ezartzen duenez, egikaritze-unitate batean dauden lursailen jabeek honako urbanizazio-karga hauek izango dituzte:

- Bide-lanak: galtzadak berdintzea, finkatzea eta zolatzea, espaloiak eraikitzea eta zintatzea, mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna errazteko beharrezko obrak barne, eta bide edo espaloien lurpean zerbitzuetarako kanalizazioak eraikitzea.
- Saneamendu-obrak: kolektore orokorrak eta partzialak eraikitzea, hartuneak, estoldak, euri-uretarako hustubideak eta araztegiak, egikaritze-unitateari dagokion proportzioan.
- Ur-hornidurako zerbitzu publikoak instalatzeko eta funtzionatzeko obrak, besteak beste, edateko ura eta suteen aurkako ureztatze-ura eta ur-hartuneak etxean banatzeko zerbitzuak, eta energia-hornidurako zerbitzuak. Horien artean daude eroanbidea, banatzeko eraldaketa eta banaketa, bai eta argiteria publikoa, telekomunikazioak eta antolamenduak aurreikusitako beste edozein ere.
- Lorategiak eta zuhaitzak jartzeko obrak, bai eta hiri-altzariak, parkeak, lorategiak eta bide publikoak jartzeko obrak ere.
- Proiektu teknikoak idaztea eta nahitaezko iragarkiak argitaratzea antolamendu xehaturako eta urbanizazio eta birpartzelazio proiektuetarako beharrezkoak diren garapen-plangintzako tresnen administrazio-izapidetzean.
- Urbanizatzeko jarduketaren sustapen- eta kudeaketa-gastuak, urbanizatzailaren enpresa-onura barne, hala badagokio.
- Etxebizitza birkokatze eta jarduerak berriro instalatzeko kalte-ordainak eta gastuak, antolamenduaren egikaritzearen ondorioz eraitsi behar diren eraikin eta eraikuntzei dagozkienak, eskubideen jabe edo titularrei dagozkienak barne, baita antolamenduarekin bateraezinak direlako desagertu behar diren landaketa, obra eta instalazioei dagozkienak ere.
- Gauzatu beharreko hirigintza-antolamenduan edo jarduketa-programan berariaz hala aurreikusten denean, gainera, egikaritze-unitatetik kanpoko azpiegitura-obrak eta zerbitzuak, bai unitatearen sareak udaleko edo udalaz gaindiko sare orokorrekin behar bezala lotzeko, bai horien funtzionaltasuna mantentzeko, bai lursailei ezartzen zaizkien beste edozein karga osagarri jartzeko.
- Eragile urbanizatzailari eta ondoriozko orubeen jabeek dagozkien urbanizazioa kontserbatzeko gastuak, administrazioak egindako obrak jaso arte.

**V.** Urbanizazio-proiektua egiteko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete behar dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

**VI.** Prozedura honako hau da:



- A) Urbanizazio-proiektua izapidetzeko eta onartzeko ekimen pribatua aurkeztu eta Udalak izapidetzeko onartu ondoren, Udaleko Zerbitzu Teknikoek aurkeztutako proiektuaren berri emango dute.

Kasu honetan, udaleko ingeniariak egin du aldeko txostena (JO21\_048).

- B) Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikularekin bat etorritik, hasierako onespena emango dio Urbanizazio Proiektuari.

Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio hasierako onespena ematea.

- C) Era berean, Urbanizazio Proiektua hasieran onetsi ondoren, jendaurrean jarriko da hoguei egunez, udaletxeko ediktu-oholean eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean iragarkia jarritik eta lurralde historikoan zirkulazio handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 196.2 artikularen arabera. Halaber, eskuragarri egongo da Udalaren egoitza elektronikoan.

Hori guztia Urbanizazio Proiektuaren lurralde-eremuan dauden lursailen jabeen zitazio pertsonala eginda.

Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzan.

- D) Jendaurreko informazioa amaitutakoan eta alegazioak ikusita, alkateak (kasu honetan, Tokiko Gobernu Batzarrak) behin betiko onartuko du Urbanizazio Proiektua, hasierako onespeneren ondorengo jendaurreko informazioaren izapidea amaitzen denetik bi hilabeteko epean.

Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, ulertuko da behin betiko onarpena administrazio-isiltasunez eman dela.

- E) Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da.

### **AZTERKETA JURIDIKOA**

“24.1 lurrarengi Pasealekua” azpiesparruaren inguruan aurkeztutako Urbanizazio-Proiektuak aplikatu beharreko legean ezarritako zehaztapen materialak eta formalak betetzen ditu, beraz, egokia da hasierako onespena ematea.

Hala eta guztiz ere, kontuan izanik 2021eko azaroaren 30eko udal teknikariaren txostenean jasotakoa, beharrezkoa izango da behin-betiko onespena eman aurretik proposatutako aldaketak Urbanizazio-Proiektuan jasotzea.



Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuz espedientean jasota dauden txosten juridikoak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- HASIERAKO ONESPENA EMATEA 24 lurre esparruko "24.1 lurramendi Pasealekua" azpiesparruko Urbanizazio-Proiektuari (2021eko ekainaren 18an aurkeztutako dokumentuari, 2021eko azaroaren 19an, bidalitako 2."Planoak" dokumentuan adierazten diren zuzenketekin):

**BEHIN BETIKO ONESPENA eman aurretik, zuzendutako dokumentua aurkeztuko da, aldaketa hauek barneratuko dituena:**

### 1. Urbanizatzeko ordenantzei eta azpiegiturei buruzkoa:

- Ur-hornidura sarea:
  - Proiektuak adierazi beharko du hartuneen konexio motak, Gipuzkoako Urak-en araudi teknikoan jasotako A motako hartune batekin bat etorri behar dela.
  - Edozein puntutatik hurbilen dagoen hidrantera egon daitekeen gehieneko distantziak ez du 100 m-tik gorakoa izan behar. Proiektuan aurreikusitako bi ur-hartuneak baldintza hori betetzen duten baieztatu beharko da.
  - Ureztatze ahoek kontagailua izango dute, eta Gipuzkoako Urak-en araudiko zehaztapen teknikoak beteko ditu.
- Ur beltzen sarea:
  - 7.1.2 3 de 8 *Azpiegiturak, Gipuzkoako Urak, Saneamendua*, planoan adierazten denaren arabera, Fe9 eta Ue12 loturen arteko kanalizazioa, mantentzea aurreikusten dena, egungo Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu teknikoarekin bat datorrela baieztatu beharko da. Horretarako bideo-ikuskapena egin beharko da. Era berean, 23-25 atarietako hartuneekin ere egin behar da. Ikuskapena egin eta akatsak antzemanaz gero, Erregelamendu horretan jasotakoa betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren jarduketak egin beharko dira.
- Euri-uren sarea
  - Paper kaleko konexio-puntutik behera, gehitutako emariarekin, hodiaren husteko ahalmena justifikatu beharko da.
  - UPVCzko hodietan 5 m/s-tik gorakoa den tarteetarako, eta, batez ere, lehendik dagoen sarearekiko konexio-puntuetan, sareko elementuen babesa bermatzeko, emariak moteltzeko soluzioak definitu beharko dira.
  - Proiektuan barne hartu beharko dira euri-uren sareko elementuen xehetasun-planok (putzuak, tapak, ezponda gaineko zorrotzenak...). Elementu horien zehaztapen teknikoak zehazte aldera, erreferentziako dokumentu gisa, Gipuzkoako Urak-en Erregelamendu tekniko hartuko da.



- Obra berriaren deklarazioan, eremu pribatua mugatzen duten hormen gainaldean dauden zaintzako arekak, baita altueran erortzeko babes-elementuak ere, elementu komun bezala jasoko dira. Ez dira Udalarena izango. Elementu horien mantentze beharrei erabilera pribatuko lursailaren jabeek erantzungo beharko diete.
  - Telekomunikazio sarea
    - Iparraldeko bideko galtzada gurutzatzen duen Telefonicaren sarearen trazadura zuzendu behar da. Trazadurak bidearen ardatzarekiko perpendikularra izan behar du.
- 2. Urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak.**
- Materialak:
    - Zintarriak, denak, granitozkoak izan behar dira. Aurrekontuan dagokion obra unitatea zuzendu beharko da.
  - Eraikuntza soluzioak
    - Proposatutako hormigoizko hormen tipologia, akabera testurizatua duena, zuzena da. Udalari kontsulta egingo zaio, exekutatu aurretik, aukeratu beharreko testurizazio motari buruz.
- 3. Txosten Sektorialak**
- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzakoa:
    - 2021eko urtarrilaren 4ko Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostena betez, HAPOko 24 lurre HJAren arau partikularreko (hirigintzako fitxa) VIII. atalean jasotako ingurumen-neurriak kontuan hartu direla justifikatu egin behar da.
  - Jabari publiko hidraulikoa:
    - Obraren eremua jabari publiko hidraulikoaren poliziagunean dagoela kontuan hartuta, nahitaezkoa da arroko erakundearen baimena.
  - Bide-jabari publikoa:
    - Kontuan izanda, GI-2130 errepidearen plataforma urbanizazio proiektuaren ondoan kokatzen dela, nahitaezkoa izango da Bide Azpiegituretako sailaren administrazio-baimena.

**BIGARRENA.-** Jakinarazpena egiten denetik gehienez ere 3 hilabeteko epea ezartzea dokumentazioa zuzentzeko.

**HIRUGARRENA.-** Urbanizazio Proiektua hogeit egunez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuz, egoki iriztitako alegazioak eta iradokizunak aurkez daitezten. Interesdunen eskura egongo da, halaber, udal honetako iragarki-oholean eta egoitza elektronikoan.

**LAUGARRENA.-** Ebazpena interesdunei zein eragindako lursailen jabeek zuzenean jakinaraztea.



#### 4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

#### 2021/1958 DEKRETUA: 2021/47 ETA 2021/48 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/1958 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0002

#### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hau:

47. zenbaki duena, 91.224,34 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturak oniritzi teknikoa dute eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENIK.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

47. zenbaki duena, 91.224,34 eurokoa

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,  
Jarduneko idazkaria

Karmele Contreras Goikoetxea



Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2021/1989 DEKRETUA: 2021/49 FAKTURA ZERRENDAK.**

Idazkariak 2021/1989 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

48. zenbaki duena, 45.177,08 eurokoa.

49. zenbaki duena, 183.952,09 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

**EBAZTEN DU:**

**LEHENIK.-** Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

48. zenbaki duena, 45.177,08 eurokoa.

49. zenbaki duena, 183.952,09 eurokoa.





TOLOSAKO  
UDALA

2021IGBA00027

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Zinegotzi delegatua*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Nire aurrean,  
idazkaría*

*Begoña Garmendía Vázquez*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Gobernu Batzarrak aho batez onartu ondoren, honako gai hau aztertu da:**

### **TOLOSAKO MUSIKA ESKOLA ETA HEZKUNTZA KONTSEILERITZAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA**

#### **AURREKARIAK:**

Euskal Autonomi Erkidegoak lankidetzaren hitzarmena sinatzea proposatu dio Udal honi, udal titulartasuneko musikaikastegiak finantzatzeko laguntza publikoak emateko.

1 Hitzarmen honen xedea da hauen arteko lankidetzaren formalizatzea: alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzaren eskumena duen saila, eta, bestetik, hitzarmena sinatzen duen udala. Lankidetzaren helburua da laguntza publiko batzuk bideratzea; hain zuzen ere, ETELen zazpigarren xedapen iragankorretik eratorriak, 2020-2021 ikasturtean emandako zerbitzuen estandarraren herena finantzatzera bideratuak, zerbitzu-emaile direla udal-titulartasuneko kontserbatorioak, musika-irakaskuntza arautu eta profesionalak eta, hala badagokio, LOEren

48.2 eta 48.1 artikuluetan xedatutako oinarrizko musika-irakaskuntzak ematen dituztenak, eta udal-titulartasuneko musika-eskolak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautuak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituen), betiere ikastegiak administraziobaimena bazuten ETEL indarrean sartu zenerako.

2.- Halaber, hitzarmen honen xedean sartzen da hizpide ditugun laguntza publikoak emateko betekizun eta baldintza orokorrak arautuko dituen esparru juridikoa ezartzea.

#### **Araubide juridikoa:**

-Bi administrazio publikoren arteko hitzarmena denez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan jasotako hitzarmen

ESKU4950c7c0-3122-4347-8a85-cea172b93241



tipologian sartuko litzateke.

Era berean, apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legearen 14.4 artikulua xedatzen du toki-erakundeek eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez den beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dutela tokiko komunitatearen intereserako, baldin eta, lege horretan azaldutakoaren arabera, bikoiztasun-egoerarik sortzen ez bada eta erakundearen ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez bada.

-Lege horren zazpigarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraikiz, ETEL indarrean sartzean musika-irakaskuntza ez-aratuak ematen zituzten udal-entitateek horrela jarrai dezakete, eta ez dute zertan egin bikoiztasun-egoerarik ez egotearekin eta finantzajasangarritasuna bermatuta izatearekin lotutako betekizunen betearazpen-txostenik.

-Gainera, hezkuntzako eskumena duen autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorrari, hau da, Hezkuntza Sailari, esleitzen zaio laguntza horiek emateko eta kuantifikatzeko betebeharra; zehazki, lege-mailako arau baten bidez (kasu honetan, LILE). Horregatik, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zuzenean eman daitezke laguntza horiek, eta emate hori Gobernu Kontseiluak onetsi behar du, interesa duen saileko titularrak proposamena egin eta gero (kasu honetan, Hezkuntzako), azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 49.7 artikulua xedatutakoa betetzeko.

-Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 66. artikulua ezartzen duenez, laguntza eman beharra dakarren legeak lankidetzahitzarmena hobesten duenean laguntza gauzatzeko —eskumena duen erakundearen eta laguntzaren onuradunen arteko hitzarmena, alegia—, erregelamendu horren 65.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio hitzarmenaren edukiari.

Ondorioz, hitzarmena da administrazio publikoen arteko laguntzak bideratzeko tresna juridikoa, hala xedatu baitute Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak, atariko tituluko VI. kapituluan, ETELen 100. artikulua eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 57. artikuluan.

-Hitzarmenak izan behar duen edukia 40/2015ko legearen 49. artikuluan dago arautua: Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.



b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketak.

c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.

d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.

e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzeak ondorioztadaitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrekebatziko dituzten hitzarmenak direla eta planteatu daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregelak hartuta:

1.a Hitzarmenak iraunaldi zehaztua izan beharko du, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.

50. artikulua honela dio:

Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.



1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelakoizaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

2. Gainera, Estatuaren Administrazio Orokorra edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek sinatzen dituzten hitzarmenei hauek erantsi beharko zaizkie:

a) Zerbitzu juridikoaren txostena. Ez dago txosten hori zertan eskatu hitzarmena bat badator dagokion zerbitzu juridikoak aurretiaz txostena egin dion eredu normalizatuarekin.

b) Aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen beste edozein txosten nahitaezko.

c) Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren alde aurreko baimena, hitzarmena sinatu, aldatu, luzatu eta alderdien arteko adostasunez suntsiarazteko.

d) Administrazio publikoen artean sinatutako urte anitzeko hitzarmenek barnean hartzen badute Estatuak funtsen ekarpenak egitea beste administrazio publiko batek eskusiboki egin beharreko jarduketak finantzatzeko, eta Estatuak, bere eskumenen barruan, konpromisoak hartzen baditu hirugarrenen aurrean, Estatuak etorkizunean urteko ordainketak egiteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditua egotea.

e) Autonomia-erkidegoekin sinatutako administrazio arteko hitzarmenei dagokienez, Senatuari bidaliko dizkio Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak.

-Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ere dago araututa (1. eta 4. artikulua). Era berean, 9 eta 10. artikulua.

**Organu eskuduna** – Gobernu Batzarra (Horrela onartu zen 2019ko uztailaren 16ko 1228 Alkatetza Dekretuaren bidez: Alkatetzak eskuordetuko du legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrean: Lankidetzak hitzarmenak onartzea, ondorengo kasuan: Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzak hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen eta 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuz espedientean jasota dauden txosten juridikoak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.** --Onartzea ondorengo Hitzarmena: Euskal Autonomia Erdidegoko Administrazio Orokorra, Hezkuntza Sailaren bitartez eta Tolosako Udalak sinatzekoa,



udal titulartasuneko musikaikastegiak finantzatzeko laguntza publikoak emateko, klausula hauen arabera:

#### **Lehena.- Xedea**

1.- Hitzarmen honen xedea da hauen arteko lankidetzaren formalizatzea: alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzaren eskumena duen saila, eta, bestetik, hitzarmena sinatzen duen udala. Lankidetzaren helburua da laguntza publiko batzuk bideratzea; hain zuzen ere, ETELen zazpigarren xedapen iragankorretik eratorriak, 2020-2021 ikasturtean emandako zerbitzuen estandarren herena finantzatzera bideratuak, zerbitzu-emaile direla udal-titulartasuneko kontserbatorioak, musika-irakaskuntza arautu eta profesionalak eta, hala badagokio, LOEren

48.2 eta 48.1 artikuluetan xedatutako oinarrizko musika-irakaskuntzak ematen dituztenak, eta udal-titulartasuneko musika-eskolak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautuak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituenak), betiere ikastegiak administraziobaimena bazuten ETEL indarrean sartu zenerako.

2.- Halaber, hitzarmen honen xedean sartzen da hizpide ditugun laguntza publikoak emateko betekizun eta baldintza orokorrak arautuko dituen esparru juridikoa ezartzea.

#### **Bigarrena.- Udal-titulartasuneko musika-ikastegiaren estandarra osatzen duten zerbitzuak**

1.- Udal-titulartasuneko musika-eskolek eman beharreko zerbitzuak, hezkuntzaren gaineko eskumena duen Administrazioak estandarizatu dituenak, honako hauek dira: balio akademiko eta profesionala duten tituluak lortzera bideratuta ez dauden musika-irakaskuntzak ematea urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren 4. artikuluan jasotako prestakuntza- eta gaitasun-mailetan. Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dira.

2.- Udal-titulartasuneko kontserbatorioek eman beharreko zerbitzuak, hezkuntzaren gaineko eskumena duen Administrazioak estandarizatu dituenak, honako hauek dira: oinarrizko irakaskuntza arautuak eta, hala badagokio, musika-irakaskuntza profesionalak ematea. Irakaskuntza horiek LOEren 48.1 eta 48.2 artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren.

#### **Hirugarrena.- Laguntzaren aurrekontu-zuzkidura eta zenbateko indibidualizatua**

1.- ETELen zazpigarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraikiz, udal-titulartasuneko musika-eskola eta kontserbatorioetara bideratutako laguntza publikoetarako guztizko zenbatekoa 14.638.325 euro izango da. Zenbateko horrek ez du baimendutako aurrekontukreditua gainditzen, 2021 ekitaldi ekonomikorako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorreko 07.22.001.422.01.42241.001 eta 07.22.001.422.01.42241.002 aurrekontupartidetan ezarritakoaren arabera.

Guztirako zenbatekotik, 13.754.695 euro dagozkie musika-eskolei, eta 883.630 euro musika-kontserbatorioei.

2.- Laguntzaren guztirako zenbateko indibidualizatua ateratzeko, hauek hartuko dira kontuan: udal-titulartasuneko kontserbatorioek eta musika-eskolek eman beharreko hezkuntzerbitzuen estandarri dagozkion modulu ekonomikoak, hitzarmen honen laugarren klausulan jasota daudenak. Beraz, formula hau aplikatuta kalkulatu da: Zenbateko indibidualizatua, guztira = irakasleen gastuen modulua x ikasleak, prestakuntza- eta gaitasun-mailaren arabera edo irakaskuntza-graduaren arabera



(kontserbatorioen kasuan) + zuzendaritza-taldearen gastuen modulua (zuzendaritza, idazkaritza eta ikasketa-burutza) + administrazio eta zerbitzuetako langileen gastuak + funtzionamendu-gastuen modulua x matrikulatutako ikasleak, guztira + ekipamendu-gastuen modulua x matrikulatutako ikasleak, guztira.

3.- Aurreko atalean ezarritakoari jarraikiz, hitzarmen hau sinatzen duen Udalari emandako zenbateko indibidualizatua **249.360 euro** da, guztira.

### Laugarrena.- Hezkuntza-zerbitzuen estandarrari lotutako modulu ekonomikoak

1.- Honako hauek dira hezkuntzaren gaineko eskumena duen Administrazioak ezarritako modulu ekonomikoak eta beren zenbatekoak, kontserbatorioek eta musika-eskolek eskaini beharreko hezkuntza-zerbitzuen estandarrari dagokionez:

<b>Modulua: IRAKASLE gastuak ikasle bakoitzeko, €-tan</b>	€
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 1M edo lehen harremana (€-tan)	130 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 2M edo hastapena (€tan)	469 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 3M edo sendotzea (€tan)	439 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 4M edo lehenetsitako jarduera (€-tan)	193 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, arautua	1.336 €
<b>Modulua: LANGILEEN gastuak eta ZUZENDARITZA taldearenak</b>	€
Modulua: gehieneko GASTUA, Zuzendaritza	21.083 €
Modulua: gehieneko GASTUA, Ikasketa-burutza	6.110 €
Modulua: gehieneko GASTUA, Idazkaritza	6.110 €
<b>Modulua: ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN gastuak</b>	€
Modulua: gehieneko GASTUA, Administraziooko langileak	19.012 €
Modulua: gehieneko GASTUA, urgazleak	16.635 €
<b>Modulua: gehieneko gastua, FUNTZIONAMENDUA, ikasle guztiak aintzat hartuta</b>	108 €
<b>Modulua: gehieneko gastua, EKIPAMENDUA, ikasle guztiak aintzat hartuta</b>	16 €

2.- Musika-eskolen kasuan, irakasleen gastuen modulua kalkulatzeko aplikatu behar den ikasle kopurua ateratzeko, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituenak, 4. artikuluan jasotako prestakuntza- eta gaitasun-maila ezberdinetan matrikulatuta dauden ikasleak hartuko dira aintzat; eta ostera, musika-kontserbatorioen kasuan, oinarrizko graduan eta gradu profesionalen 2020/2021 ikasturte akademikoan matrikulatutako ikasleak.

Hezkuntza Sailak «Eskola jarduerako estatistikak» txostenerako bildutako datuak



*hartuko dira matrikulazio-datuen erreferentziatzat.*

*3.- Zuzendaritza-taldeko kideen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen gastuei dagozkien modulu ekonomikoei zenbateko finko bat esleitu zaie, eta berbera izango da udaltitulartasuneko kontserbatorio eta musika-eskola guztietan.*

*4.- Funtzionamendu-gastuei eta ekipamendu-gastuei dagozkien modulu ekonomikoak azken zenbatekoa kalkulatzeko, esleitutako zenbatekoa bider udal-kontserbatorio edo musikaeskola horrek 2020/2021 ikasturtean matrikulatuta dituen ikasleen kopurua egin behar da.*

*5.- Baldin eta tokiko erakunde bat musika-eskola eta kontserbatorio baten titularra bada eta ikastegi biek zuzendaritza-taldea eta administrazio eta zerbitzuetako langileak partekatzen badituzte, kontserbatorioari dagokion finantzaketa kalkulatzeko ez dira aintzat hartuko administrazio eta zerbitzuetako langileei eta zuzendaritza-taldeari dagozkien modulu ekonomikoak.*

*6.- Goian zehaztutako modulu ekonomikoak gehieneko zenbateko ekonomikoak direla ulertzen da.*

*7.- Modulu bakoitzari dagokion zenbatekoa eguneratu egingo da Hezkuntza Sailaren mendeko eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-zentro publikoetako langileei egindako soldata-igoera aintzat hartuta, baita Hezkuntza Sailaren mendeko musika-kontserbatorioei funtzionamendurako eta ekipamendurako esleitutako aurrekontu-partiden igoerak aintzat hartuta ere.*

*8.- Edonola ere, dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzetan jazotako aldaketa orok berekin ekar dezake hura emateko ebazpena aldatzea, betiere erakunde onuraduna izateko ezarritako baldintza minimoak –dirulaguntzei buruzko arauak ezarritakoak– errespetatzen badira.*

### **Bosgarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

*1.- Gastu hauek jotzen dira diruz laguntzeko modukotzat:*

*a) Irakaskuntzetan zuzenean parte hartzen duten eta ezinbestekoak diren langileen gastuak: irakasleen gastuak, barne hartuta ordezkioenak; zuzendaritza-taldearen gastuak (zuzendaritza, idazkaritza eta ikasketa-burutza) eta administrazio eta zerbitzuetako langileen gastuak. Langileen gastuek honako kontzeptu hauek hartuko dituzte barne:*

*I. Langileen soldatak, barne hartuta ikastegietako titularrek Gizarte Segurantzari enpresa-kuotagatik ordaindu beharreko kotizazioak.*

*II. Langileen antzinasunari dagozkion kontzeptuak ordaintzeko beharrezkoak diren zenbatekoak.*

*III. Ikastegiko langileen prestakuntza- eta hobekuntza-gastuak.*

*b) Kontserbatorio eta musika-eskoletako funtzionamendu-gastuak, barne hartuta ikastegiko jarduerak egiteko ezinbestekoak diren ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak; zehazki, honako hauek:*

*I. Errentamenduak eta kanonak:*

*– Instalazio teknikoak, makineriaren eta erreminten errentamendua; altzarien errentamendua eta informazio-prozesuetarako ekipoen errentamendua.*

*– Kanonak: barne hartzen ditu heziketa-programak erabiltzeko lizentziak eta erabilera-lizentzia informatikoak.*

*II. Konponketak eta kontserbazioak:*



- *Eraikuntzak: Eraikinak konpontzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak, barne hartuta lorategiak, kiroldegiak, jolastokiak eta antzeko espazioak.*
- *Instalazio teknikoak, makineria eta erremintak: mantentze-kontratuak eta konponketa-, kontserbazio- eta mantentze-lanak egiteko materialen eta eskulanaren gastuak.*
- *Altzariak: Altzariak kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak.*
- *Informazioa prozesatzeko ekipoak: Fotokopiagailu, fax eta antzekoen konpontze- eta mantentze-gastuak, bai eta ikastegietako ekipamenduak mantentzeko indarrean dagoen kontratuan jasota ez dauden gainerako ekipamendu informatikoena ere.*
- *Garraio-elementuak.*

### *III. Kanpoko beste zerbitzu batzuk:*

- *Profesional independenteen zerbitzuak: Materialak eta dokumentuak egitea edo beste azpikontzeptu batzuetan sartu ezin diren arren, profesional independenteek ematen dituzten beste zerbitzu batzuk; kasu horretan, dagokion PFEZ atxikipena egingo zaio.*
- *Garraioak: Peoi-gastuak eta mota guztietako garraioen kostua, izan lurrekoak, itsasokoak edo airekoak, salbu eta ikastegiko langileen bidaiengatik kalte-ordainak eta eskolagarraioaren gastuak.*
- *Banku-zerbitzuak eta antzeko zerbitzuak.*
- *Erakunde-komunikazioa, publizitatea eta harreman publikoak: Barne hartzen ditu publizitate-iragarkien gastuak eta beste edozein publizitate-bitartekorenak, baldin eta helburutzat badute ikastegiko zerbitzuen inguruko berri ematea, dibulgazio-kanpainak, orientazioak eta, oro har, ikastegiaren zerbitzuei buruzko informazioa hainbat gizartehedabideren bitartez zabaltzera bideratutako gastuak, baita ikastegiak protokolo- eta ordezkari-erretengatik egiten dituen ezohiko gastuak ere.*
- *Hornidurak: Argindarra, ura, gasa eta erregaiak. Jantziak eta uniformeak. Elikagaiak. Material didaktikoa (ez bada material inbentariagarria). Eskola-jantokietarako material ezinbentariagarriaren hornidura. Produktu farmazeutikoak eta hemoderibatuak. Tresnak eta erremintak (lehenengo erabileran erabilgarritasuna agortzen ez zaien tresnak eta materialak erosteko eta berritzeko gastuak). Beste hornidura batzuk (garbiketa-materialak eta aurreko kontzeptuetan sartu ezin diren bestelako askotariko materialak).*
- *Kanpoko beste zerbitzu batzuk: Bulegoko materiala. Egunkariak, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk. Curriculumerako materiala. Garbiketa eta txukuntasuna. Segurtasuna. Lokomozioa eta langileen egonaldien gastuak. Posta-komunikazioak. Mezularitza. Beste komunikazio batzuk. Argitalpenen edizioa eta banaketa. Bilerak, konferentziak eta ikasleei zuzendutako ikastaroak. Zuzenean kudeatutako eskola-jantokietara bideratutako zerbitzuen prestazioa. Eskola-garraioa eta laguntzaileak. Enpresa espezializatuak kontratatuta egindako beste jarduera batzuk (itzulpenen, grabazioen, webguneen sorkuntzaren, aplikazio informatikoen mantentze-lanen gastuak, Ikaslan eta antzeko elkarteetan parte hartzearen kuoten gastuak eta ikasleekin hezkuntza-jarduerak egitetik eratorritako beste gastu batzuk).*





c) *Kontserbatorioetako eta musika-eskoletako ekipamendu-gastuak, ikastegiko ekipamendua berritzera eta zabaltzera bideratuta daudenak eta ondasun inbentariagarritzat hartzen direnak; zehazki, honako hauek:*

I. *Instalazio teknikoak, makineria eta erremintak, eta beste instalazio batzuk: telefono-instalazioak, telefonoguneak, termo-instalazioak, berogailu-instalazioak, aire girotua, megafonia-instalazioak eta sare informatikoak.*

II. *Altzariak.*

III. *Musika-tresnak.*

IV. *Informazio-prozesuetarako ekipoak.*

V. *Segurtasun-ekipamendua eta -elementuak.*

2.- *Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagungarriak izango:*

a) *Zergak eta tasak, BEZa barne (baita berreskurazina den kasuetan ere).*

b) *Laguntza publikoaren xedeko jarduerarekin zalantzarik gabe identifika ezin diren gastuak, indarreko legeriaren arabera behar bezala justifikatu ez diren gastuak eta hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera epe barruan egin ez diren gastuak.*

*Ez dira merkatu-balioa gainditzen duten gastu lagungarrien eskuratze-kostuak onartuko.*

3.- *Diruz lagundu daitezkeen gastuak estaltzeko epea diruz laguntzeko aldi honen barruan kontabilizatuko da: 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitartekoa.*

### **Seigarrena.- Aldeen betebeharrak eta konpromisoak**

*Hitzarmen honen xedea bete eta bertan adostutakoa gauzatzeko, berau sinatu duten aldeek honako betebeharrak eta konpromisoak hartzen dituzte:*

1.- *EAEko Administrazio Orokorrek, Hezkuntza Sailaren bitartez:*

*Udal-titulartasuneko kontserbatorio eta musika-eskoletarako laguntza publikoak bideratzera zuzendutako guztirako zenbateko indibidualizatua ematea, ETELen zazpigarren xedapen gehigarrian eta hitzarmen honen hirugarren klausulan ezarritakoari jarraikiz.*

*Behar den kopurua bermatzea, 2022 ekitaldirako EAEko aurrekontu orokorretako partida egokietan, hitzarmen honetako hirugarren klausulan jasotako finantzaketa-konpromisoei aurre egin ahal izateko.*

*Kontserbatorioak eta musika-eskolak finantzatzeko betebeharra beteko dela bermatzea, ETELen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraikiz.*

*Hitzarmen honen xedea betetzeko behar diren ekintza guztiak garatu eta gauzatea.*

*Hitzarmen hau egoki gauzatzeko behar diren koordinazio-mekanismoak antolatzea.*

*Seigarren klausulan aipatutako jarraipen batzorde teknikoaren buru izatea, batzordearen funtzionamendua sustatzea eta klausula horretan jasotako funtzioak betetzen direla bermatzea.*

2.- *Sinatzen duen toki-erakundeak, kontserbatorio edo musika-eskolaren titular gisa:*



- *Hitzarmen honen bigarren klausulan adierazitako irakaskuntzak emateko baimena duen eta 2020-2021 ikasturtean irakaskuntza horiek eman dituen kontserbatorio edo musika-eskola baten titularra izatea.*
- *Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ez eta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexudiskriminazioaren ondoriozkoak barne (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena).*
- *Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Betekezun biek iraun behar dute emandako dirulaguntzak likidatu arte; beraz, bete izana egiaztatuko da bai emateko orduan bai ordaintzeko orduan.*
- *Erakundea itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badago, hau da, EAEko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den halako prozeduraren batean, zehaztu zer prozeduratan.*
- *Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotea.*
- *Xede bera duten eta bestelako administrazio edo ente publiko zein pribatuei eskatu zaizkien eta, hala badagokio, haietatik jaso diren dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea, eta, jasoz gero, laguntzen edo direnak direlakoen zenbatekoa eta eman dituen erakundearen izena ere adierazita.*
- *Jasotako laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea, bai eta hitzarmen honetako laugarren klausulan adierazitako gastuak ordaintzeko ere.*
- *Igorpenen ordainketari lotutako nahitaezko justifikazio-agiriak aurkeztea hitzarmen honen zazpigarren klausulan adierazitako moduan eta epean.*
- *Jasotako funtsen erabilpena frogatzen duten agiriak gordetzea, baita elektronikoak ere, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean.*
- *Hezkuntzako Sailburuordetzak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren jardunean ari direla, informazioa eskatuz gero hitzarmen honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz, informazio hori ematea.*
- *Laguntza ematerakoan kontuan izandako zirkunstantziaren bat aldatzen bada, horren berri ematea Hezkuntzako Sailburuordetzari.*
- *Jarraipen batzorde teknikoari erraztea eman zaizkion zereginak betetzea.*
- *Eskolak daukan antolaketa-, pedagogia- eta kudeaketa-autonomiaren barruan, printzipio hauek betetzen direla bermatzea: diskriminaziorik eza eta hezkuntzarako irispide unibertsala, aukera- eta tratu-berdintasuna eta ikasle guztientzako heziketaren bikaintasuna bilatzea. Hori guztia, euskara eta euskal kultura ardatz estrategikotzat hartuta.*
- *Bermatzea bere titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastegiak une oro betetzen dituela irakaskuntza bakoitzari aplikagarria zaion araudian ezarrita dauden betekizunak, funtzionamenduari, irakasleen titulazioari, instalazioei eta ekipamenduei dagokienez eta kontratatutako irakasleei aplikatu beharreko lan-erregimenari dagokienez.*
- *Irakaskuntzen herena estaltzera hurbiltzen diren matrikulazio-prezio publikoak*



*ezartzea, musika-eskolak finantzatzeko, Europako idealari jarraikiz.*

- Hezkuntza-proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko behar beste baliabide ekonomiko bermatzea, alde batera utzita Hezkuntza Sailaren laguntzen eta dirulaguntzen bidez lor daitezkeenak.*
- Jasotako dirulaguntzen berri emateko neurriak hartzea. Neurri horien euskarrietan –informatikoetan zein bestelakoetan– adierazpen hau sartzera mugatuko dira: «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzatu du jarduera hau».*
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsiak) 50. artikuluan jasotako betebeharrak guztiak betetzea.*

#### **Zazpigarrena. – Jarraipen batzorde teknikoa.**

*1.- Hitzarmen honetan eta eranskinetan adostutakoa kudeatzeko, jarraitzeko, zaintzeko eta gauzatzea kontrolatzeko, jarraipen batzorde tekniko bat osatuko da. Honako hauek osatuko dute:*

- Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona, batzordeburu-lanetan.*
- Hezkuntzako ikuskari bat, Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusiak izendatuko duena.*
- Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari-lanetan. Ahotsa izango du, baina botorik ez.*
- Euskal Udalerrien Elkarteko (EUEDEL) ordezkari bat.*

*Hitzarmenaren jarraipenerako batzorde teknikoaren jarduera Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 15. artikulutik 18. artikuluraino ezarritakoaren arabera izango da.*

*2.- Hitzarmenaren jarraipenerako batzorde teknikoak funtzio hauek ditu:*

- Hitzarmen honen klausulen garapena eta egikaritze egokia kudeatzea, eta klausula horien betetze-maila gainbegiratu, kontrolatua egiaztatzea.*
- Aurkezten diren derrigorrezko agiriak aztertu eta ebaluatzea, hitzarmen honetan adierazitakoaren arabera. Ildo horretan, aukera izango du beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzea, horretarako ezarritako epean eta moduan.*
- Hitzarmen honen ondoriozko interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea. Ezinezkoa bazaio, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari dagokio arazok ebaztea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraikiz.*
- Egokitzat jotzen dituen hobekuntzen edo aldaketen formalizazioa proposatzea.*

*3.- Dirulaguntzaren onuradun den kontserbatorioko edo musika-eskolako titularrak,*



erakunde laguntzaileak eta dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten hirugarrenak derrigorrez aritu beharko dira batzordearekin lankidetzan, eta batzordearen kontrol-zereginen jardunean eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte, ezarritako moduan eta epean.

Betebehar hori betetzeari uko egitea erresistentzia, desenkusa, oztopatze edo ezezkotzat joko da, arau hauetan aurreikusitakoaren ondorioetarako: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikulua, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua. Aurreko guztia, ezertan eragotzi gabe egokitu daitezkeen beste zehapenak.

4.- Hitzarmenaren funtsa ukitzen ez duen aldaketa teknikorik bada, jarraipen batzorde teknikoak berak erabaki ahalko du.

5.- Jarraipen batzorde teknikoak bi ohiko bilera egingo ditu urtean, eta bat etorriko dira igorpen-epeekin. Hala ere, ezohiko bilerak ere egin ahal izango ditu, batzordeko kideetako edozeinek hala eskatuta. Bilerak bitarteko elektronikoz egin ahalko dira.

#### **Zortzigarrena.- Laguntzak ordaintzeko eta justifikatzeko modua.**

1.- Emandako laguntzak zatika ordainduko dira, bi igorpenetan; zehazki, honela:

a) Lehenengo igorpena emandako laguntzaren % 85aren parekoa izango da, hitzarmena

sinatu eta gero, eta agiri hauek 2021eko abenduaren 15a baino lehen aurkeztuta:

Erantzukizunpeko adierazpena (I. eranskina), Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuta.

Xede bera duten eta bestelako administrazio edo ente publiko zein pribatuei eskatu zaizkien eta, hala badagokio, haietatik jaso diren dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea, eta, jasoz gero, laguntzen edo direnak direlakoan zenbatekoa eta eman dituen erakundearen izena ere adierazita.

Administrazio- edo zigor-arloan zigortuta ez egotea dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, edo dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, ez eta sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuren baten eraginpean ere.

Egiazkoak izatea eskabideko datuak eta emandako dokumentazioa, eta ongi betetzea indarrean dagoen araudian dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak.

Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako egoeraren batean.

Erakunde onuraduna itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badago, hau da, EAEko Administrazio Orokorrak edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den halako prozeduraren batean, zehaztu egin beharko du zer prozeduratan.

2020-2021 ikasturtean prestakuntza- eta gaitasun-maila edo irakaskuntza-gradu bakoitzean matrikulatutako ikasleen zerrenda (II. eranskina). Musika-eskolen kasuan, errefortzua jasotzen duten ikasleen zerrenda ere atxikiko da, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren 19.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Euskal Autonomia Erkidegoan «MusikaEskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezarri ditu dekretu horrek.

b) Bigarren igorpenean gainerako zenbatekoa ordainduko da; hau da, emandako



laguntzaren % 15. 2022 ekitaldian egingo da, gastuak justifikatu ondoren; justifikatu ere, 2022ko martxoaren 1a baino lehen aurkeztuta dokumentazio hau:  
Justifikazio-memoria ekonomikoa. (III. eranskina).

Irakasleen, zuzendaritza-taldearen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen zerrenda (IV. eranskina).

2.- Justifikazio-agiriak aurkezteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bitarteko elektronikoak erabili beharko dira, honako helbide honetako Nire karpeta atalaren bitartez: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

### **Bederatzigarrena.- Ez betetzea eta itzulketa-prozedura.**

1.- Laguntzaren onura hartu duen toki-erakundeak ez baditu betetzen hitzarmen honetan jasotako baldintzak, betekizunak edo betebeharrak, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako egoeraren batean badago, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, berandutze-interes aplikagarriak gehituta. Aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.  
Halaber, dirulaguntza errebokatuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan jasotako arrazoietakoa bat gertatuz gero.

2.- Laguntzak itzultzea eskatzeko prozedurek beti izango dute administrazio-izaera, eta, horretarako abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraituko zaio. Dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko araubide orokorra arautzen du, eta bertan, dirulaguntzen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak eta betebeharrak ezartzen dira.

### **Hamargarrena.- Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea**

1.- Erakunde onuradunak dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat itzuli ahalko du, eta, horretarako, Administrazioak ez du aurretiazko errekerimendurik egin behar, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2.- Administrazioak honela kalkulatuko ditu berandutze-interesak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 38.2 artikuluan adierazitakoari jarraikiz. Horretarako, dirulaguntza ordaindu zenetik erakunde onuradunak dirulaguntza benetan itzuli arteko aldia hartuko da aintzat.

Hamaikagarrena.- Hitzarmena azkentzeko arrazoiak

Hitzarmen hau urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen

51. artikuluan jasotako kasuetan azkenduko da.

### **Hamabigarrena.-Dirulaguntzen**

#### **Bateragarritasuna**

1.- Bateragarriak izango dira emandako laguntza eta beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo



*baliabide batzuk; betiere, gainfinantzaketarik ez baldin badago, eta ezertan eragotzi gabe batera gerta litezkeen beste dirulaguntzen arau erregulatzailleek horri buruz xedatua..*

*2.- Hala ere, emandako laguntzaren zenbatekoak ezingo du gaintitu, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk gehituta, udal-titulartasuneko musikaeskolak 2020-2021 ikasturte akademikoan eskainitako zerbitzuen estandarraren herenaren finantzaketa. Halakorik gertatuz gero, erakundeak modu fede-emailean komunikatu beharko dio dirulaguntza eman dion organoari; horretarako, egindako itzulketaren gutunaren kopia aurkeztu beharko du, hala badagokio.*

*Gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.*

#### **Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren izaera juridikoa eta interpretazioa**

*1.- Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta administrazio publikoen arteko lankidetzahitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoaren arabera interpretatu eta garatuko da; zehazki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren 47. artikulutik 53. artikulura bitartean eta 140.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*2.- Administrazio publikoen kontratuen legeria aplikatzeko aukerari dagokionez, baztertuta dago, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikulua arabera.*

*3.- Hitzarmen hau sinatzeak ez dakar esku hartzen duten aldeek eskumenei uko egitea, ez eta eskumen horiek aldatzea ere. Aldeek hitzarmen honen arabera hartzen dituzten betebeharrak eta konpromisoak datxezkien erantzukizunak baino ez dituzte bereganatzen.*

#### **Hamalagarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.**

*Hitzarmena sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2022ko apirilaren 1a arte egongo da indarrean.*

#### **Hamabosgarrena.- Finantza-konpromisoak beteko direla bermatzeko klausula.**

*1.- ETELen 24.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, klausula bat gehitzen zaio lankidetzahitzarmen honi, bertan aurreikusitako finantza-konpromisoak beteko direla bermatzeko.*

*2.- Aipatutako legea betez, baimena ematen zaio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari sistema bat erabaki dezan, eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian aplikatu, EAEko Administrazio Orokorrek hitzarmena sinatu duen toki-erakundeari aurreko aurrekontu-ekitaldian egin gabeko finantza-transferentziak atxikitzeko, eta dagokion udalerritari edo dagokien udalerriei esleitzeko. Hori guztia, ordaintetarik ezarritako eran egiten ez direnerako. Transferentzia hori konpentsatu egin beharko da ordaintzeko betebeharrak bete ez zen aurrekontu-ekitaldiaren ondoko ondoko ekitaldiaren lehen hiru hilabeteetan.*

#### **BIGARRENA.-- Alkatesari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.**



TOLOSAKO  
UDALA

2021IGBA00027

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau Gardentasun ataria eta web orrian argitaratzea. Halaber hitzarmenaren onespena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:30ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IGBA0027-2021-12-14 Gobernu batzarra akta/2021-12-14 Gobernu